

# IKD Irakasle Talde Egituratuak (edIKDit) akreditatzeko bigarren deialdi pilotua 2019

## 1. Deialdiaren nondik norakoak

Azken urteotan, UPV/EHUK IKD irakaskuntza-ikaskuntza eredua (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) bultzatzeko ekintzak sustatu ditu, hainbat programaren bitartez. Horietako batzuk dira: irakasleentzako prestakuntza tailerrak eta ikastaroak, Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuak, EHUNDU konpromiso dokumentuak ikastegiekin edo irakaskuntzaren arloko Jardunaldiak edo Biltzarrak.

Programa horiek **irakasleen arteko lankidetzaren kultura** bultzatu dute, hain zuzen ere, UPV/EHUKo ikasleek jasotzen duten prestakuntzaren **etengabeko hobekuntzarako** beharrezkoa den kultura, irakaslanean elkarrekin lan egiten duten irakasle taldeen jardueran oinarritutakoa.

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak 2018an lehenengo deialdi pilotua egin zuen eta horren bitartez, **erakunde babesa** eman nahi zitzaizen irakasle talde horiei, taldeok baitira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetzeko ardura erakutsi eta lortutako emaitzek egoera bakoitzean duten eragina aztertu eta interpretatzen dutenak. Bigarren deialdi honen bidez jarraipena eman nahi zaio zabalkunde lan honi, eta talde horiei merezi duten ikusgarritasuna eta aitortpena IKD Irakasle Talde Egituratuaren zigorria emanda. Talde hauek **erreferente** bilakatu behar dira beren inguru hurbilenean, **kalitadedun irakaskuntza eta koordinazio kultura sustatzeko** beren titulazioetan, taldean gero eta irakasle gehiago hartuta edo beste talde batzuk eratzera bultzatuta, horrela, epe ertainean, UPV/EHUKo irakasle gehienak irakasle talde egituratuaren bilduta egon daitezten.

IKD irakasle talde egituratuak (edIKDit) dira IKD ereduarekin bat irakasten duten irakasleez osatutako taldeak, **koordinazio maila handiarekin eta ikasleen ikaskuntzarekiko konpromiso maila altuarekin lan egitea bereizgarri dutenak**. Talde hauek beren curriculum eremuko irakaskuntzaren arduradun egiten dira, honako hauek izanik edIKDit baten erreferentziako elementuak:

1. Irakaslana aldizka ebaluatzea: taldeko kideek ebaluazioa egiteko aurkeztu dute beren irakats lana Docentiaz programaren bidez, eta ebaluazio positiboa-oso ona lortu dute.
2. Irakaskuntza-ikaskuntza estrategia eta metodologia aktiboak eta berritzaileak ezartzea, gizarte konpromisoa eta garapen jasangarriko helburuak (EHU Agenda 2030) ere bultzatuz eta irakaskuntzan txertatuz.
3. Hezkuntzarako ebaluazioa ikasleen ikaskuntzarako oinarritzko elementu moduan erabiltzea: irakasten dituzten gaietako irakats gidetan eta ikasleen gidetan ikaskuntzan lortutako emaitzak azaltzen dira, lortutako ebaluatzeke irizpideak zehaztuta, eta ikasleen ikasketa prozesua helburu daukan ebaluazio sistemarekin bat datozen prozedurak ere zehaztuta.

4. Irakaskuntza modu eraginkorrean koordinatzea beren irakasgaietan, gaietan edo diziplina moduluetan<sup>1</sup>, parte hartzen den titulazioetako eduki espezifikoetan zein orokorretan gaitasunak garatzeko.
5. Ikasleen iritzia eta emaitza akademikoak irakaskuntza hobetzeko informazio iturri moduan erabiltzea, hori onuragarria izanik ikasleen etekinerako.

## 2. Deialdian parte hartzeko baldintzak

Deialdi hau zuzentzen zaie IKD irakaskuntza-ikaskuntza ereduaren barruan egin eta bere irakaslan ikusarazi eta bultzatu nahi duten UPV/EHUko irakasle taldeei. Edozelan ere, normalean, irakasleak sail berekoak izaten dira, titulazio batean edo gehiagotan irakasgai edo gai bera ematen dutenak eta irakasgai, gai edo diziplina modulu horietan ikasleen ikasketa prozesua hobetzearen alde lan egiten dutenak.

Deialdian parte hartzeko, taldeak honakoak bete behar ditu:

- B1. UPV/EHUko titulazioetan irakasgai, gai edo diziplina modulu berean irakasten duten irakaslez osatuta egotea eta, gutxienez, bost kide izatea.
- B2. Memoria bat aurkeztu behar da irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetze aldera taldearen lana, helburuak eta lan metodologia azaltzeko<sup>2</sup>.
- B3. Gutxienez, taldeko kideen % 80aren irakaslan DOCENTIAZ programak egiaztatuta egon behar da, eta taldeko irakasle bakoitzak, gutxienez, 70 puntu izan behar ditu azken ebaluazioan. Gainontzeko % 20ak aldeko ebaluazioa izan behar du edo azken deialdian ebaluazio eskatuta izan, eta aldeko ebaluazioa lortu beharko dute.
- B4. Talde guztiek puntuazio ertaina edo altua eduki behar dute ikasleek irakasleen irakaslanari buruz duten iritzia ebaluazioan. Ebaluazio horretarako erabiliko den adierazlea bat dator DOCENTIAZ programako 2.2 ataleko adierazlearekin ("Ikasleek duten iritzia buruzko inkesta")<sup>3</sup>. Gutxienez hamar puntutik sei lortu beharko dira eskaera egiteko unean, horretarako azken bost ikasturteetako datuak erabilia.

<sup>1</sup> Gai edo diziplina modulu bat da, antzeko edukiak dituen irakasgai multzoa, elkarrekin lotura dutenak eta ezagutza arlo berekoak, eta aldi berean edo jarraian ikasi edo programatu daitezkeenak. Titulazioaren curriculumean, irakasgaia baino unitate koherente zabalagoa eratzten dute.

<sup>2</sup> Besteak beste, metodologia teknikak hobetuz, ikasleen gaitasunen garapena koordinatuz...

<sup>3</sup> Adierazlea honela kalkulatu da:

Irizpidea: Ikasleen asebetetze maila					
Adierazlea: Irakasleen iritzi inkestako 25. itemean lortutako puntuazioa, egindako inkesten portzentajearen arabera.					
0 puntu	2 puntu* <i>fpe</i>	4 puntu* <i>fpe</i>	6 puntu* <i>fpe</i>	8 puntu* <i>fpe</i>	10 puntu* <i>fpe</i>
25. itema ≤ 2,5	2,5 < 25. itema < 2,7	2,7 ≤ 25. itema < 3	3 ≤ 25. itema < 3,5	3,5 < 25. itema ≤ 4,0	25. itema > 4,0

Non 25. itema honako hau den: azken bost urteotan egindako irakaskuntza egoeren inkesten batez bestekoa bider *fpe* (inkesten haztapen faktorea), *pe* (egin daitezkeen irakaskuntza egoeren inkesta guztietatik, egin diren inkesten portzentajea) balioaren bidez haztatua. *fpe* honela kalkulatu da:

$$\begin{aligned}
 fpe &= 0 & pe & 0,5 \text{ baino txikiagoa bada (\% 50 baino gutxiago)} \\
 fpe &= 0,5 + (pe - 0,5) * 2 & pe & [0,5 - 0,75] \text{ artean badago, biak barne} \\
 fpe &= 1 & pe & 0,75 \text{ baino handiagoa bada}
 \end{aligned}$$

### 3. Eskariak

edIKDit zigilua lortzeko eskaerak UPV/EHUko irakasle talde batek egin behar ditu. Irakasleetako bat taldeko erreferentzia izango da, eta bitarteko lanak egingo ditu taldearen eta errektoreordetzaren artean.

Irakasle talde batek lortutako edIKDit aitortpenak bost urterako balioko du, aitortpen hori lortzen denetik kontatzen hasita.

edIKDit aitortpenetik kanpo geratuko dira Masterretako Batzorde Akademikoak eta Ikastegietako Batzarrek izendatutako batzordeak, hala nola, Kalitate Batzordeak edo Graduako Ikasketen Batzordeak.

Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da, deialdia Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eta campusetako errektoreordetzetako iragarki tauletan (ehutaula) argitaratzen denetik hasi eta maiatzaren 15a arte, biak barne.

Eskaerak A eranskinetako ereduari jarraituz bete behar dira eta Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzako web gunean formularioaren bidez pdf formatuan aurkeztu (<http://go.ehu.eus/edIKDit>). Gune horretan daude eskuragai bete beharreko eranskinak. Horrez gain, eskariaren kopia osoa, pdf formatuan, bidali behar da errektoreordetzara posta elektronikoen bidez ([berrikuntza-konpromisoa.ikdit@ehu.eus](mailto:berrikuntza-konpromisoa.ikdit@ehu.eus), [edikd.innovacion-compromiso@ehu.eus](mailto:edikd.innovacion-compromiso@ehu.eus)). Honako informazio hau eman beharko da:

1. Eskaria egiten duen taldearen datuak.
2. Taldearen lanaren oinarria, hau da, kideek elkarrekin ematen dituzten irakasgai, gai edo diziplina moduluak, zehaztuta taldeak zenbat kreditu ematen dituen eta guztirako kredituak<sup>4</sup>.
3. Lan taldearen diziplina-esparruaren definizioa
4. Lan metodologia eta bere irakasgaietako orientazio didaktikoaren azalpen laburra.

Aurreko deialdian aitortpena lortu zuten edIKDit taldeek eskaria egin dezakete taldeko kideak aldatzeko, betiere, taldeak deialdian zehaztutako irizpideak beteko baditu. Taldeko kideak kendu edo berriak sartu daitezke, eta erreferentziako kidea ere alda daiteke. Eskari guztiak deialdiaren epearen barruan aurkeztu behar dira, eta behar bezala arrazoituta eta justifikatuta egon behar dira. Balorazio berezia izango dute irakasle berriak sartzten dituzten taldeek. Taldearen osaketa aldatzeko, edIKDit taldea aldatzeko eskaria bete behar da (B eranskina) eta horretarako, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzako web gunean eskuragarri dagoen orria bete eta web formularioaren bidez erantsi behar da (<http://go.ehu.eus/edIKDit>). Horrez gain, taldea aldatzeko eskariaren kopia osoa, pdf formatuan, bidali behar da errektoreordetzara posta elektronikoen bidez ([berrikuntza-konpromisoa.ikdit@ehu.eus](mailto:berrikuntza-konpromisoa.ikdit@ehu.eus), [edikd.innovacion-compromiso@ehu.eus](mailto:edikd.innovacion-compromiso@ehu.eus))

---

<sup>4</sup> Formula honen bidez kalkulatzen da:

$$\% \text{ emandako kredituak} = \frac{\text{CedIKDit} \times 100}{\text{Cguztira}}$$

Non: CedIKDit = taldeko kideek ematen duten irakasgai/gai/diziplina moduluaren ECTS kredituak  
C guztira = irakaskuntza modalitate guztietan irakasgai/gai/diziplina moduluko talde guztietan ematen diren ECTS kredituen batura.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutako eskaerak aztertuko dira. Izapide hau hilabeteko epean egingo da. Aurkeztutako dokumentazioa osorik ez badago edo zuzen daitekeen akatsen bat badu, taldeko erreferente den kideari 10 egun balioduneko epearen barruan eskaera osatzeko edo zuzentzeko eskatuko zaio. Eskaera ez bada zuzentzen edo osatzen, bertan behera utzi dela ulertuko da. Halaber, irakasle taldea ez bada iristen deialdian eskatutako pertsona kopuru gutxienera, eskaria baztertuko da okertzeko aukerarik eman gabe, ez baita eskari gehiago onartuko okerrak eta akatsak zuzentzeko epean.

Taldeko kideren bat deialditik kanpo geratuz gero baldintzak ez betetzeagatik, taldeak aurrera egin dezake eskariarekin kide hori kanpoan utzita, betiere, erreferente den pertsonak berariaz eskatzen badu akatsak zuzentzean eta kide kopurua deialdian zehaztutako gutxienera heltzen bada.

Eskatutako informazioa eta/edo dokumentazioa bidaltzeko, eskaera aurkezteko adierazitako bide berberak erabili beharko dira. Kasu honetan ere, kopia bat, pdf formatuan, bidali beharko da posta elektronikoko bidez honako helbide honetara: [berrikuntza-konpromisoa.ikdit@ehu.eus](mailto:berrikuntza-konpromisoa.ikdit@ehu.eus)

## 4.- Publizitatea

Deialdi honi buruzko informazio egokia izatea bermatuko da, eta, gutxienez, honako toki eta baliabide hauen bidez emango da deialdiaren berri:

- Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzako webgunean
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetako errektoreordetzetako iragarki ohol elektronikotan (ehutaula)

## 5. Ebaluazioa eta Ebazpena

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeak emango du edIKDit zigorra.

Epaimahai bat eratuko da eta honako hauek izango dira epaimahai horretako kideak: a) Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea, b) SAE-HELAZ Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuko zuzendaria, c) SED-IEZ Irakaslana Ebaluatzen Zerbitzuko zuzendaria, d) Metodologia Berrikuntzarako zuzendaria, eta e) eCampuseko zuzendaria.

Epaimahai honek irakasle taldeek bidalitako memoriak ebaluatuko ditu eta eskaera egin duen taldeko kideei edo ikastegiko zuzendaritzari edo ikasleei informazio osagarri eska diezaieke.

Hauek izango dira ebaluaziorako irizpideak:

1. Taldeko kideek 2. ataleko B3 eta B4 baldintzak betetzea: Irakaslana Ebaluatzen Zerbitzuko gainbegiratuko du puntu hau.
2. Taldeko irakasleek irakasgaien zenbatekoa betetzen duten (guztirako kredituen %).
3. Taldearen diziplina arloa zehaztea: irakasgaiak, gaiak edo diziplina moduluak eta IKD ereduaren araberako orientazio didaktikoa.
4. Etengabekoa eta hezigarria den ebaluazioa praktikan jartzea.

5. Gizarte konpromisoa eta garapen jasangarrirako helburuak zein heinean hartzen diren kontuan, oinarri hartuta EHU Agenda 2030 (IKD i3).

Frogatzat hartuko dira taldeak bidalitako memoria eta irakasgai bakoitzaren url loturan argitaratutako informazioa (UPV/EHUren web gunekoa).

Epaimahaiak behin-behineko erabakia emango du eta erabakia Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzako webgunean argitaratuko da.

Epaimahai horrek aitortutako taldeen kide aldaketak edo erreferentziako kidea aldatzeko eskariak ere aztertuko ditu, eta bere oniritzia baieztatu edo ezetsiko du, kontuan izanda talde berriak deialdiko baldintzak betetzen dituen edo ez.

Eskaeran edIKDit taldeko erreferente den kideak 10 egun balioduneko epea izango du egokitze jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, epaimahaiak behin betiko proposamena aurkeztuko dio Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordeari.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta bost hilabeteko gehienezko epean emango da edIKDit zigitua emateko edo ukatzeko behin betiko erabakia. Erabaki hori Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzako webgunean argitaratuko da.

Erabakiaren aurka berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean, erabakia argitaratzen denetik hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 123. eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da bi hilabetearen epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

## 6. edIKDit taldeen ikusgaitasuna


Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak bere webgunean argitaratutako edIKDit taldeen katalogoa eguneratuko du bigarren deialdi pilotu honetan zigitua eskuratu duten irakasle taldeak erantsita (<http://go.ehu.eus/edIKDit>). Katalogo horrek honako gutxienezko informazio hau bilduko du irakasle talde bakoitzari dagokionez: kodifikazioa, izen laburtua eta/edo izen osoa, taldea osatzen duten kideen zerrenda, taldea zein helburutarako koordinatu den deskribatzen duen eta lorpenak jasotzen dituen laburpen txiki bat eta lan metodologia.

edIKDit irakasle talde bateko kide diren UPV/EHUko irakasleei talde horretan parte hartzen dutela egiaztatzeko dokumentu bana emango zaie. edIKDit taldeetako irakasleek trataera berezia izango dute UPV/EHUk irakaskuntzaren arloan antolatutako deialdietan.

Horrez gain, errektoreordetza eskudunak irakasteko jardunbide egokiak trukatzeko jardunaldiak bultzatzen jarraituko du. Jardunaldiok UPV/EHUko irakasle guztiei irekita egongo dira eta horietan leku berezia izango dute edIKDit taldeek.

## 7. Zigilua berritzea

Irakasle talde baten edIKDit zigiluak bost urterako balioko du. Aldi hori igarotakoan, edIKDit taldeak akreditazioa berritzeko eskaera aurkeztu beharko dio irakaslanaren ebaluazioaren arloan eskumena duen errektoreordetzari. Zigilua berritzea baldintzatuko dute taldeak akreditazioa indarrean egon den artean lortutako emaitzek, garaia heldutakoan indarrean dauden akreditazio deialdietan ezarritakoa gorabehera.



Idoia Fernández Fernández  
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Innovación, Compromiso Social y Acción cultural